

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Armentia menpeko toki erakunderako Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikuspen Partzialaren aurrerapena onestea

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ekainaren 16an egindako ohiko bilkuran:

1. Armentia menpeko toki erakunderako Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikuspen Partzialaren aurrerapena onestea, zeina Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketarako Zerbitzuak 2017ko ekainean landu baitzuen, eta dossierrean jaso baita.

2. Aurrerapenari buruzko agiriak jendaurrean jartzea eta horren berri ematea ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, edozein erakunde edo interesdunek agiriak aztertu eta egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan, bi hilabeteko epean. Horrez gain, Plangintzarako Aholku Batzordeari nahitaezko txostena eman dezan eskatzea, informazio publikorako aldiari. Orobat, aldaketa hau pres-tatu, izapidetu eta onesteko prozeduran jarraitu beharreko herritarren partaidetza programa gauzatzea. Halaber, Armentia Administrazio Batzarrari aurrerapenaren berri emango zaio, ezagutu eta txostena egin dezaten.

3. Eusko Jaurlaritzan eta Arabako Foru Aldundian babes zibilaren, ingurumenaren eta kultura eta natura ondarearen alorretan eskumenak dituzten organoei eskatzea argibideak eman ditzaten dauden arriskuez eta ingurumena eta kultura zein natura ondarea babestearren antolakuntzan errespetatu behar diren baldintzez; informazio hori, justifikazio teknikoa eta juridikoa erantsita, gehienez bi hilabeteko epean eman beharko da.

4. Behin betiko onetsi arte –eta, edonola ere, gehienez ere urtebetez– etenda uztea hirigintza antolakuntza eta hori betearazteko prozedurak zein hirigintzarekin lotutako onartze-, baimen- eta lizentzia-emateak eremu hauetan:

- Armentia 1 gauzatze unitatea (UE-ARM1).
- Armentia 2 gauzatze unitatea (UE-ARM1).
- 11 poligonoko 0283, 0306, 0316 eta 0284 katastro-lursailak.

5. Ingurumen-organoari ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko eskabidea igortzea, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikuspen Partzialaren aurrerapenarekin (planaren zirriborroa) eta ingurumen arloko strategiaren dokumentuarekin batera.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai – Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25–, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko ekainaren 21ean

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE